

# HIRI-LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEN ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

## 4. ordenantza

### Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko VI. kapituluko 172. artikulutik 178.era bitartekoetan, bi horiek ere barne, xedatutakoaren babesean.

### Zerga-egitatea

2. artikulua.- 1) Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga zuzeneko tributua da, lur horiek izan duten balio-gehikuntza zergapetzen duena gehikuntza hori agerian geratzen denean, dela lur horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzearen ondorioz, dela lur horiek erabiltzeko edozein gozamen-eskubide erreal –jabaria mugatzen duena– sortu edo eskualdatzearen ondorioz.

2) Zerga honen ondorioetarako, kategoria hauetako batean sartzen direnak hartuko dira hiri-lurtzat, Katastroan edo Katastro Erroldan hiri-unitate higiezin gisa jasota egon ala ez egon:

a) Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko foru legedian hiri-lurzorutzat hartutako lurrak eta Hirigintzako Planeamendu Orokorrean lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatuak, bai eta urbanizagarri gisa sailkatuak gainerako lurrak ere, haiek sektorizatzeko hirigintza-tresna onesten den unetik.

b) Hirigintza-sailkapena edozein izanda ere gutxienez ibilgailuendako sarbideak, ur-hornidura, ur-hustuketa eta energia elektrikoaren hornidura dituzten lurrak; edo bestela, gutxienez azalera erdia eraikia duten eremu finkatuan daudenak.

c) Landa-lurrak, nekazaritza-erabileraren kontrako jarduketak bertan egiteagatik erabilerara horretarako indargabeturik gelditu direnak, baina luraren izaera aldatua izan gabe.

d) Eraikinek eta beren eranskinek hartutako lurrak, bai eta halako eraikinen menpekoak ere.

e) Industria jarduerak hartzen dituzten lurrak.

3) Landa-lurrak dira aurreko atalean xedatutakoaren arabera hiri-lurtzat hartzen ez diren lurzoruak. Lur horien balio-gehikuntza ez dago zerga honi atxikia.

4) Hiri-lurren eskualdaketa ez dira zergaren menpe egonen baldin eta subjektu pasiboak frogatzen badu horietan ez dela balio-gehikuntzarik izan lurren eskualdaketa eta eskurapenaren balio errealean arteko diferentziak eraginda.

Ondorio horietarako, subjektu pasiboak balio-gehikuntzarik ez dela izan ziurtatzen duten frogak aurkeztu beharko ditu.

Balio-gehikuntzarik ez dela izan frogatzeko, luraren eskualdaketa eta eskurapenaren balio errealek izan dira, hurrenez hurren, ondasun higiezinaren eskualdaketa eta eskurapenean ordaindutakoak, eragiketa horiek agiri bidez jasotzen dituzten tituluetan ageri direnak, eta, ondorio horietarako, ezin izanen dira zenbatu eragiketa horiek zergapetzen dituzten gastuak edo zergak, edo, bestela, Udalak edo higiezinaren eskualdaketa kargatzen duten zergen kudeaketaz arduratzen den Zerga Administrazioak egiaztatutakoak, haiek baino handiagoak bada.

Irabazizko eskurapena edo eskualdaketa denean, aurreko paragrafoetako erregelak aplikatuko dira, eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren aitortzean ageri dena izanen da balio horien zenbateko erreala, edo Udalak edo eskualdaketa kargatzen duten zergen kudeaketaz arduratzen den Zerga Administrazioak administratiboki egiaztatutakoa, hura baino handiagoa bada.

Atal honetan xedatutakoarekin bat egindako aitortpena, eragiketa zergaren menpean ez dagoela dioena, balioa egiaztatu aurrekoa, behin-behinekoa izanen da. Hori dela medio, ondoren egiaztatzen den balioaren arabera frogatzen bada balio-gehikuntza izan dela, luraren eskualdaketa zergaren menpe geldituko da. Kasu horretan, udalek behar den tributu likidazioa egiten dute.

Likidazioa egina badago ordurako, ordea, ondoren egiaztatutako balioaren arabera frogatzen bada ez dela balio-gehikuntzarik izan, zergadunak eskubidea izanen du dagokion itzulketa egin dakion. Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da baldin eta, kasu horietako bakoitzean, preskribitu ez badu udalen eskubideak tributu-zorra zehazteko, edo zergadunen eskubideak bidegabeko sarreraren itzulketarako.

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Foru Komunitateko Zerga Administrazioak udalei jakinaraziko die zein diren berak egiaztatutako balioak, haien udalerrietan dauden higiezinak.

Lurzoruaren balioa bereizirik ageri ez bada, honela kalkulatu da: eskualdaketa datan luraren balio katastralak ondasun higiezinaren balio katastral osoarekiko egiten duen proportzioa aplikatuko da. Proportzio hori higiezinaren eskualdaketa nahiz eskurapenerako aplikatuko da.

Atal honetan adierazitakoarekin bat lurren balio-gehikuntzarik ez dagoenean, Ordenantza Fiskal honen 13. artikuluan araututako deklarazioa aurkezteko betebeharra mantenduko da betiere.

Atal honetan adierazitakoarekin bat lurren balio-gehikuntzarik ez dagoenean, higiezinaren ondorengo eskualdaketa ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia lurren balio-gehikuntza gertatu den urte kopurua kontaktzearen ondorioetarako. Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko higiezinaren ekarpenak edo

eskualdaketak zergaren menpe ez badaude Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaz baliatuz.

### Salbuespenak

3. artikulua.- 1. Zerga honetatik salbuetsirik daude honako egintza hauen ondorioz gertatzen diren balio-gehikuntzak:

a) Ezkontideek ezkontza-sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, haren alde eta haiek ordaintzeko egindako esleipenak, eta ezkontideei haien bien aktiboen ordainetan egiten zaizkienak.

b) Herentziaz, legatuz, ezkonsariz, dohaintzaz edo doako beste edozein titulu bidez aurrekoen, ondorengoen eta ezkontideen artean egiten diren eskualdaketak, mota guztietako ondasunenak.

c) Ezkontideen arteko edo seme-alaben aldeko ondasun eskualdaketak, deuseztasun, banaketa edo dibortzio kasuetan epaiak betetzearen ondoriozkoak, ezkontza araubide ekonomikoa edozein dela ere.

Nolanahi ere, aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren negozio juridikoak gertatzen direnean, eta zergapetutako balio-gehikuntza bat badago baina salbuetsita, ez dute etenik eraginez 5. artikulua 1. apartatuan aurreikusitako hogeitaz urteko epean. Higiezin horiek gero eskualdatzen direnean, ulertuko da lurren balio-gehikuntza gertatu den urteen kopuruan ez dela etenik izan letra horietan aurreikusitako negozio juridikoak direla eta. Halaber, 2. artikulua 4. apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez da eskurapen-baliotzat joko aipatu negozio juridikoei dagokiena, baizik eta aurrez higiezina beste egintza batzuen bidez eskualdatzeagatik dagokiona.

d) Zortasun eskubide ororen eraketa eta eskualdaketa.

e) Ondasun eskualdaketak edo jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eraketa edo eskualdaketa irabazizkoa, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean aurreikusitako zerga araubidea aplikatzekoa zaien entitateen alde, edo maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 4. artikuluan aipatzen den kultur mezenasgoaren onuradunak diren pertsonen eta entitateen alde (foru lege horrek Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen ditu).

Letra honetan araututako salbuespenerako eskubidea izateko, beharrezkoa izanen da ondasun edo eskubide horiek 10/1996 Foru Legean jasotako entitateen berariazko xedea diren jardueri atxikitzea, edo 8/2014 Foru Legean jasotako pertsonen edo entitateen egindako proiektuei edo jardueri, baldin eta interes sozialaren deklarazioa badute, Nafarroako Gobernuaren eskumena duen departamentuak emana.

2. Era berean, kasuan kasuko balio-gehikuntzak zergatik salbuetsirik daude zerga hori ordaintzeko betebeharrak pertsona edo entitate hauei badagokie:

a) Nafarroako Foru Komunitatea, Estatua, autonomia-erkidegoak eta horien guztien menpeko erakunde autonomo administratiboak.

b) Zergapetzearen udalerrria eta udalerrri horretan sartutako gainerako toki-entitateak, edo udalerrria kide dutenak, bai eta haien erakunde autonomo administratiboak ere.

c) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, Aseguru eta Berraseguru Entitateen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Foru Legean araututakoak.

d) Nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan salbuespena aitortua duten pertsonak edo entitateak.

e) Emakida administratibo errebertigarrien titularrak, horiek atxikiak dituzten lurrei dagokienez.

### Subjektu pasiboak

4. artikulua.- 1. Honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisara:

a) Lurren irabazizko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan, lurren eskuratzailerak edo kasuan kasuko eskubide erreala noren alde eratu edo eskualdatu eta pertsona hori bera.

b) Kostu bidez lurra eskualdatu edo jabaria mugatzen duten eskubide erreala eratu edo eskualdatzen direnean, lurraren eskualdatzailea edo kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

Letra honetan aipatzen diren kasuetan, lurraren eskuratzailerak edo delako eskubide erreala noren alde eratzen edo eskualdatzen den, huraxe hartuko da zergadunaren ordezkotzat; betiere, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera eskuratzailerak zergadunaren ordezkotzat denean, eskualdatzaileari betiere jasanarazten ahalko dio kargaren zenbatekoa.

2. Hipoteka-zordunek ohiko etxebizitzaren gainean egiten dituzten eskualdaketetan, baldin eta etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasunpean duen bakarra bada, higiezina eskuratzen duen entitatea zergadunaren ordezkotzat izanen da, eta ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari, honako kasu hauetan:

a) Finantza-entitate batek eskatuta abiarazitako prozedura judicial batean.

b) Etxebizitza notario bidez judizioz kanpo saltzen den kasuetan (Hipoteka Legearen 129. artikulua).

c) Etxebizitza ordainean ematen denean, hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin hipoteka-betearazpenaren ordezkotzat neurri gisa erdietsitako akordioaren ondorioz.

d) Etxebizitza finantza-entitate hartzekodun baten, haren higiezin-filialean edo haren aktibokudeaketarako entitateen alde eskualdatzen den gainerakoetan, zeinak Kreditu-erakundeak berregituratu eta konpontzeari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legean zehazten baitira.

3. Hipoteka betearazpen judizial edo ez-judizial bat egiten ari den bitartean hipoteka-zordunek ohiko etxebizitzaz beste ondasunak direla-eta egindako eskualdaketetan, konkurtso-prozeduraren esparruan, higiezina eskuratzen duen finantza-entitatea zergadunaren ordezkotzat joko da, eta hari ordainarazten ahalko zaio haren kargaren zenbatekoa.

#### Zerga-oinarria

5. artikulua.- 1. Zerga honen zerga-oinarria hiri-lurren balio-gehikuntza da, sortzapenaren unean dagoena eta gehienez ere hogeituro urteko epean izandakoa; haren zenbatekoa kalkulatzeko, sortzapenaren unean lurra zuen balioa –artikulu honen 3., 4., 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoaren arabera kalkulatu– ordenantza fiskal honen tarifa-eranskinean aurreikusitakoaren arabera sortzealdiari dagokion koefizienteaz biderkatuko da.

2. Balio-gehikuntzaren sortzealdia hau izanen da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, eskualdaketa kostu bidezkoa nahiz irabazizkoa izan, lurraren eskurapenaren egunetik eskualdatu arte igarotako urte kopurua.

b) Jabaria mugatzen duen eskubide erreala bat eratzten denean, lurraren eskurapenaren egunetik eskubide erreala eratu arte igarotako urte kopurua.

c) Jabaria mugatzen duen eskubide erreala bat eskualdatzen denean, eskubidearen eskurapenaren egunetik eskualdaketa egin arte igarotako urte kopurua.

Igarotako urteen kopurua kontatzean urte osoak hartuko dira, urte zatikiak kontuan hartu gabe. Sortzealdia urtebetetik beherakoa denean, urteko koefizientea hainbanatuko da, soilik hilabete osoak kontuan hartuta, eta ez hilabete zatikiak.

3. Lurren eskualdaketetan, zergaren sortzapenean lurrek duten balioa izanen da indarra duen balorazio txostena aplikatzearen ondoriozkoa, ondasun berezizat harturiko zati badira ere edo eskualdatutako ondasun higiezinaren banako balioa zehaztu gabe bada ere.

Aurrekoa gorabehera, lurraren eskualdaketa egiten den unean indarreko balorazio txostenean azaltzen ez bada lurra zerga honen ondorioetarako duen hiri-lur izaera, edo lurraren hirigintzako ezaugarriak aldatu badira eta balorazio txostenean azaltzen direnak bezalakoak ez badira, behin-behineko likidazioa eginen da balorazio txosten horretan azaltzen den baliotik abiatuta. Zergaren sortzapenaren unean lurra duen hirigintzako errealitate berriaren arabera balioa finkatzen duen balorazio txosten berria onetsi ondoren, zergaren sortzapenaren egunari dagokion behin betiko likidazioa igorriko da, eta, bidezkoa bada, ordaindutako soberakina itzuliko.

Ondorio horietarako, balorazio txosten berriari agertzen den balioa zuzenduko da, honela: sortzapenaren unean indarra zuen txostenaren arabera hiri-lur gisa sailkatutako lur guztietako metro koadroaren batez besteko balio ponderatua zati txosten berriari emandako metro koadroaren batez besteko balio ponderatua, eta zatiketa horretatik ateratzen den koefizientea txosten berriari agertzen den balioaz biderkatuko da.

4. Jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide errealen eraketan eta eskualdaketan, 2. apartatuan aurreikusitakoari jarraikiz sortzealdiari dagokion koefizientea aurreko apartatuan zehaztutako balioaren gainean aplikatuko da, eskubide horien balioak egiten duen zatiaren gainean zehazki; eskubideen balioa kalkulatzeko, ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuko dira.

5. Eraikin batean edo lursail batean solairu bat edo gehiago jasotzeko eskubidea eratu edo eskualdatzen denean, edo eraikina lur azpian egiteko eskubidea (azalerako eskubide erreala atxikita izan gabe), 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat sortzealdiari dagokion koefizientea aplikatuko da 3. apartatuan zehaztutako balioaren zati batean, hau da, balio horretan eskualdaketaren eskrituran ezarritako proportzionaltasun modulua ordezkatzeko duen zatian, edo, halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azaleraren edo bolumenaren eta, horiek eraiki ondoren, azalera edo bolumen eraiki osoaren arteko proportzioaren emaitza.

6. Nahitaezko desjabetzeen kasuan, 2. apartatuan aurreikusitakoari jarraikiz sortzealdiari dagokion koefizientea aplikatuko da balio justuaren barruan lurraren balioari dagokion zatiaren gainean, 3. apartatuan zehaztutako balioa txikiagoa denean izan ezik; kasu horretan, azken hori gailenduko da balio justuaren gainean.

7. Subjektu pasiboak eskatuta, 2. artikulua 4. apartatuan xedatutakoaren arabera zehaztutako balio-gehikuntzaren zenbatekoa 5. artikulua honen aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

#### Kuota

6. artikulua.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari Ordenantza honen eranskinean jasotako karga-tasa aplikatzearen emaitza izanen da.

Iruñeko Udalak aplikatutako koefizienteak izanen dira une bakoitzean sortzealdi bakoitzerako baimenduta dauden koefizienterik handienak, unean-unean indarrean daudenak, betiere Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2. artikulua-rekin bat.



## Sortzapena

7. artikulua.- 1) Zerga honako kasu hauetan sortzen da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen bada, kostu bidez edo dohainik, bizien artean edo heriotzagatik, eskualdatzen den egunean berean.

b) Jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide errealen bat eratu edo eskualdatzen bada, eraketa edo eskualdaketa ematen den egun berean.

2) Epaitegiek edo administrazioak emandako ebazpen irmoaren bidez deklaratu edo onartzen bada lurraren eskualdaketa edo horren gaineko gozamen-eskubide errearen eskualdaketa zehazten duen egintza edo kontratua deuseztatu, eten edo ebatzi dela, subjektu pasiboak eskubidea izanen du ordaindutako zerga itzul diezaioten –betiere egintza edo kontratu horrek irabazirik ekarri ez badio eta itzulketa, ebazpena irmo bihurtu eta bost urteko epean, egin diezaiotela eskatzen badu–; ulertuko da irabazi-ondorioak izan direla, egiaztatzen ez bada interesdunek elkarri itzulketak egin behar dizkiotela, zein eta Nafarroako Foru Berriko 506. Legeak eta horiekin bat datozenek eta Kode Zibileko 1295. artikulua aipatzen dituztenak. Egintzak edo kontratuak irabazirik ekarri ez badute ere, etetea edo ebazpena deklaritzen bada subjektu pasiboak zergarekiko dituen betebeharrak bete ez dituelako, ez da deus itzuliko.

3) Kontratua indarrrik gabe gelditzen bada –kontratu-emaile biek adostasun osoz hala erabaki dutelako–, ordaindutako zergarik ez da itzuliko eta zergaren menpekora egintza berriztat hartuko da. Elkarren arteko adostasun gisa joko da adiskidetze-ekitaldi baten bidez bat etortzea eta demandari amore emate hutsa.

4) Baldintzaren bat tartean daukaten egintza edo kontratuetan, horren kalifikazioa Nafarroako Foru Berriko aginduen arabera egingen da. Eteteko baldintza bada, baldintza hori bete arte ez da likidatuko zenbatekoa. Suntsiarazteko baldintza bada, zerga galdatu egingen da, betiere kontuan harturik baldintza hori betez gero behar den itzulketa egin beharko dela, aurreko lerroaldeko erregelari jarraikiz.

## Zergaren kudeaketa

8. artikulua.- 1) Zergadunak edo, halakorik balitz, beren ordezkioak beharturik daude aitorpena aurkeztera, bertan jasota, betiere, egin beharreko likidazioa egiteko nahitaezkoak diren tributuharremaren elementuak.

2) Aitorpenak honako epe hauetan egin beharko dira, zerga noiz sortu eta hortik aurrera:

a) Bizien arteko egintzak badira, epea bi hilabetekoa izanen da.

b) Heriotzaren ondoriozko egintzak badira, epea 6 hilabetekoa izanen da, eta urtebetekoa, subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

9. artikulua.- 1) Tributu-aitorpena subjektu pasiboak edo bere legezko ordezkariak sinatuko du, harekin batera honako agiri hauek aurkeztuta:

a) Subjektu pasiboaren NANaren edo IFZren, bizileku-txartelaren, pasaportearen edo IFKren fotokopia, edo ordezkariak egiaztatzen duen beste edozein agiri.

b) Agiri bat non jasota egonen baita zerga sorrarazi duen egintza, egitatea edo kontratua, zeina kudeaketa-bulegoaren esku geldituko baita, dagokion likidazioa ematen den unera arte.

2) Udal Administrazioak laguntza emanen die tributuharremaren betebeharrak egiteko.

3) Aitorpenak aurkezten ahalko dira izapide hau hirugarren pertsonen izenean bide telematikoz egiteko baimendutako pertsona edo entitateen bidez, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat.

4) Aitorpena aurkeztearekin batera, zergadunak eskatzen ahalko du zergaren menpekora ez izatearen gaineko behin-behineko aitorpena 2. artikulua 4. apartatuan aurreikusitako kasuetan, eta/edo 5. artikulua 7. apartatua aplikatzea zerga-oinarria zehazteko, 2. artikulua 4. apartatuan ezarritakoarekin bat. Eskabidearekin batera, 2. artikulua 4. apartatuan kasu bakoitzerako aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

10. artikulua.- 1) Baldin eta subjektu pasiboak uste badu adierazitako balio-gehikuntzak salbuespena, mendetasunik eza edo preskripzioa eragiten duela, hala jakinarazten ahalko du legeek ezarritako epeetan, betiere onura horri babesa ematen dion lege-xedapena adierazirik eta, behar izatera, hura egiaztatze dokumentazioa erantsita, aurreko artikuluan galdatutako agiriez gain.

2) Baldin eta, alegatutakoa gorabehera, bidezkoa bada ordaintzeko betebeharra, Udal Administrazioak kasuan kasuko likidazioa egingen du.

3) Baldin eta zergadunek hainbat kopuru ordaindu badituzte hamar urteko modalitatea edo baliokidetasun-tasa baliaturik, Foru Parlamentuaren 1981eko ekainaren 2ko Erabakiaren bidez onetsitako Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Arauaren 74.1. artikulua eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 5. xedapen iragankorrean aurreikusitakoari helduta, ateratako kuotari modalitate hori dela-eta zergaldian ordaindutako zenbatekoak kendu beharko zaizkio.

11. artikulua.- Ulertuko da aitorpena aurkezten duenak aurkezteagatik beragatik jarduten duela zerga ordaindu behar duen pertsonaren orde, eta tributua kudeatzeko jardunbidean hark aurkeztutako agiriei

dagokienez egiten diren jakinarazpenek orok nahiz hark sinatutako eginbideek interesdunekin beraiekin egin izan balira bezainbesteko balioa izanen dute, eta ondorio berdinak eragingo.

12. artikulua.- Udal Administrazioak zergaren behin betiko likidazioa ezartzeko beharrezko diren bestelako agiriak aurkezteko eskatzen ahal die subjektu pasiboari, 30 eguneko epean aurkezteko ere, non, interesdunak eskatuta, epe hori beste 15 egunez luzatzen ahalko baita; errekerimendu horiek ezarritako epeetan betetzen ez badute, hori arau-hauste arintzat joko da, betiere zehapen astunaren graduazioaren osagarri gisa bezala ez badu jarduten, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean xedatutakoarekin bat.

13. artikulua.- Udal Administrazioak, zerga honen likidazioak onesten baditu, legezko eran jakinaraziko die hori subjektu pasiboari, betiere ordaintzeko epeak eta bidezkoak diren errekursoak adierazita.

14. artikulua.- 13. artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe, lurzoruak eskualdatu zein jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eratu edo eskualdatzen dituztenek orok Udalari adierazi behar diote, subjektu pasiboek dituzten epe eta era berberetan adierazi ere, zerga-egitatea gauzatu dela, baldin eta horiek irabazi asmoz eta bizien arteko negozio juridikoaren ondorioz gauzatu badira.

15. artikulua.- Notarioek betebeharra dute, hiruhileko bakoitzaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan zerga honen peko egitatea gauzatu dela agerian uzten duten gertakari, egintza edo negozio juridikoei buruz baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea Iruñeko Udalari igortzeko, azken borondatezko egintzei dagozkienak izan ezik.

Halaber, beharturik egonen dira, epe berean, sinadura ezagutu edo legitimatzeko aurkeztu zaizkien agiri pribatuen zerrenda, gertakari, egintza edo negozio juridiko berberak osatutakoa, igortzera.

Artikulu honetan aurreikusitakoak ez du galarazten lege orokorretan eta tributuei buruzkoetan ezarritako laguntza emateko betebeharrak orokorra.

Arau-hausteak eta zehapenak

16. artikulua.- Tributuen esparruko arau-hausteen kalifikazioari zein kasuan-kasuan horiek direla medio ezartzeko diren zehapenen xedapenari dagokien orotan, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapeneko Ordenantza Fiskalean xedatutakoari egingen zaio men.

TARIFA-ERANSKINA

Zerga-oinarria

Sortzapenaren unean lurra duen balioaren gainean aplikatu beharreko koefizienteak, balio-gehikuntzaren sortzealdiaren arabera: Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2. artikuluan ezarritako koefizienterik handienak izanen dira.

KARGA TASA: % 23